

L.G.: 55-0197/03

zer ote?

emakumearen eguna

martxoak 7-15

ZIZURKILGO UDALA



kultura euskara

www.zizurkil.com

martxoa 2007 46. zenbakia NEGUA


Aurrera Plaza 3, 20159 ZIZURKIL • 943 692495





Zizurkilgo aisialdirako gida



Kultura		Informazio gehiago Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.943 692495
Mar.10	Zizurkilgo V. BLUES GAUA “Zizurkilen ezer ez ta festa!!!” Zikloaren barnean. 22:30: Aurrera Tabernan Speak Low taldea. 00:00: Egarri Tabernan Juan Bourbon, Juan Scotch & Juan Beer taldea. 01:30: Atxulondo Tabernan Stay Blues taldea. 03:00: Aurrera Tabernan King Bee taldea.	 Sarrera doan.
Mar.7	Emakumearen Nazioarteko Eguna Eskulanetan aritzen diren emakumeek egindako lanen erakusketaren inaugurazioa 19’00etan Atxulondo Kultur Etxean.	
Mar.8	“Ligatzen ikas ezazu” mintegia, 19’00etatik 21’00etara martxoaren 8, 12 eta 15ean, Eduardo Troncoso, soziologo eta psikologoarekin. Izen emateak: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan. Prezioa: 10 euro.	
Mar.9	“Hindu un sueño de libertad” ikus-entzunekoa 19’00etan Atxulondo Kultur Etxean. Zuzendaria Kepa Gonzalez (Emakunde Saria 2003). Emakume saharauien bizitza Tindufeko errefuxiatu kanpaldian (Argelia). Ondoren, ikus-entzunekoaren zuzendariarekin mahaingurua.	
Mar.10	Irteera: Arizkuneko Santxotena Parke Museora bisita gidatua, bazkaria eta musika Elizondon. Izen emateak: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan edo Udal Liburutegian martxoaren 2a baino lehenago. Prezioa: 28 euro.	

Euskara	
Mar.6	Bai Euskarari Ziurtagiriak Kontseiluak “Bai Euskarari Ziurtagirien” aurkezpena 19’00etan Atxulondo Kultur Etxean.
Mar.23	Korrika Txiki Herriko ikastetxeetako haurrek Korrika Txiki egingo dute herrian zehar 15’30etatik aurrera. Ondoren, merienda banatuko da.
Mar.24	Korrika herritik pasako da goizeko 11’05etan.

Aste Santuan Jolasean Apirilaren 10etik 13ra, 1995-2003 urte bitartean jaiotako umeentzat. Izen emateak, Aurrera Plazako Udal Bulegoetan martxoaren 30a baino lehenago. Izen ematearekin batera, 5 euro ordaindu beharko dira Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.
--

Kirola	
Mar.4	IV. AIZTONDO KLASIKOA: Bailaren ospatzen den txirrindulari klasikarik nagusiena martxoaren 4an ospatuko da. Aurtengoan Larrauldik abiatu eta Zizurkila iritsiko da.

Gaztedia	
Mar.17	GAZTEENTZAKO ESKI IRTEERA Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolatuturik, 1987-1994 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko eski irteera Luz Ardidenera. Prezioa: 25 euro eta bertan sartzen da autobusa, pistak erabiltzeko txartela, aseguruia eta eski edo snow materialaren alokairua. Izen emateak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan martxoaren 9a baino lehenago.

Bestelakoak	
Mar.10	Txapel Eguna Aurtengoan Txapela ZENTROARI emango zaio, urte guzti hauetan kale-giroan izan duen eraginaren errekonozimendu gisa.



Bai Euskarari Akordioa Aiztondon

ANDRETEGI (Aduna)

HOL-ATZ EGUR TRATAMENDUA (Aduna)

SOINTEK (Aduna)

REFRACTACIONES KELSEN (Aduna)

ZABALA SAGARDOTEGIA (Aduna)

ZUMETA BILTEGIA (Aduna)

EIZMENDI HARATEGIA (Villabona)

ERNIOPE BIDAIAK S.L. (Villabona)

INMOBILIARIA IRUKIDE (Villabona)

LABEZAIN OKINDEGIA (Villabona)

OGI GOXO OKINDEGIA (Villabona)

MENDIKOI-FRAISORO (Zizurkil)

TALLERESARRASTOA(Zizurkil)



2007ko Martxoan Ibarran eginiko Bai Euskarari Banaketa ekitaldia

AIZTONDON BAI EUSKARARI.
2006 urte amaieratik Aiztondon euskalgintza sendotu eta egituratzeko asmoarekin jende multzo bat elkartzen hasi da. Talde honen xedea euskararen normalkuntzan abiatzen diren ekimen oro Aiztondon txertatzeaz gain gizartean euskararekiko konpromisoa sustatzea da. Zentzu honetan Tolosaldeko Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso prozesuarekin bat eginez datorren martxoan zehar Bai Euskarari Ziurtagiria sustatuko dugu Aiztondoko eragileen artean.

Bai Euskarari Akordioa Aiztondon